## *TEKNOLOGIA: 1- 3 Maila* *EBALUAZIO-ADIERAZLEAK*

| EBALUAZIO-IRIZPIDEA | ATAZA*)* | HAUTATUTAKO ADIERAZLEAK | EGOKITZAPENA<br>(ikasleak ere auto-ebaluaziorako erabil dezake) |
|---|---|---|---|
| 7. Taldean egitea garatu beharreko lan-prozesuaren plangintza, eta erabili beharreko baliabideak aurreikustea, problema teknikoak ebazteko. | Gelan aurkeztutako proiektuari eman dioten irtenbidea, lan-taldean aurrera eraman lan-prozesuaren plangintza eginez eta aurreikusiz materialak, erremintak, eta abar | 7.1. Ea parte hartzen duen jarraitu beharreko lan-plana egiten. Plan horretan sartzen da zereginak taldeko kideen artean banatzea.<br><br>7.2. Ea deskribatzen dituen erabili beharreko materialen oinarrizko propietateak, lan-tresnak eta –teknikak.<br><br>7.3. Ea egiten dituen egin beharreko kalkuluak, aldez aurretik finkatzeko zer baliabide erabili. Horretarako, ea baliabideen neurriak edo ezaugarriak zehazten ditu.<br><br>4. Ea behar adina gestio egiten duen aukeratutako baliabideak lortzeko. | a. Era aktiboan parte hartzen du Lan-plana egiten.<br>b. Zereginak banatzerakoan elkarlanean aritu da.<br>c. Tokatu zaion ataza lan-talde bateko partaide bezala bereganatzen du.<br><br>d. Erabiliko dituen materialen oinarrizko ezaugarriak deskribatzen ditu.<br>e. Erreminta egokiak aukeratzen ditu.<br><br>f. Behar izango duen baliabideen kalkulu egokia egiten du.<br>g. Erabiliko duen materialaren neurriak era egokian probetxatzeko kalkuluak egiten ditu.<br><br>h. Baliabideak lortzeko egin beharreko gestioak ezagutzen ditu.<br>i. Materiala lortzeko beharrezko urratsak ematen ditu.. |